| AREATZAKO UDAL TITULARTASUNEKO MENDIETAN DAUDEN LARREAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA | ORDENANZA REGULADORA DE ZONAS PASTABLES EN LOS MONTES DE TITULARIDAD MUNICIPAL DEL AYUNTAMIENTO DE AREATZA |
|---|---|
| **1. artikulua.** Ordenantza honetanlarreen aprobetxamendua arautuko da, Areatzako udal titulartasuneko mendietako larreak behi, zaldi, ardi eta ahuntz espezieak gizentzeko zein hazteko erabiltze aldera, baita erleen loreketa ibiltzeko ere, betiere Euskal Herrikoak diren arrazak lehenetsiz.<br><br>**2. artikulua.** Areatzako Udalak baimendu ahal izango du larreen aprobetxamendua Ordenantza honetan ezarritakoaz bat etorriz eta basoetako antolaketa planetan xedatutakoarekin batera.Baimen hau jabego eskubide barik eta hirugarrenei kalterik egin barik ematen da.<br><br>Baimendutako epeak hainbat urtetakoak izan daitezke, aldeen artean sinatutako egitarau eta konpromiso zehatzen barne direla.<br><br>Era berean, Areatzako Udalak legez eratutako udalerriko abeltzainen elkarteekin edo udalerritik kanpokoak diren beste elkarte batzuekin lankidetza hitzarmenak sinatu ahal izango ditu.<br><br>**3. artikulua.** Ordenantza honek arautzen dituen larreen aprobetxamendua honako hauek eskatu ahal izango dute:<br>- Areatzako Udal mugartean dagoen behi, zaldi, ardi edota ahuntz ganaduaren abere-ustiategi edota erlauntzenbaten titularrak diren Areatzaudalerriko auzokideak.<br>- Legez eratuta dauden udalerriko abeltzainen elkarteak.<br>-Areatzako udal mugartean dagoen behi, zaldi, ardi edota ahuntz ganaduaren abere-ustiategi edota erlauntzen baten titularrak diren Areatzaudalerriko auzokideak.<br>-Udalerritik kanpokoak diren elkarteak, haiekin hitzarmenak sinatuta izanez gero. | **Artículo 1.**Constituye el ámbito de esta Ordenanza el aprovechamiento de pastos para ganado de abasto y vientre de las especies bovino, equino, ovino y caprino, con preferencia siempre de las razas autoctonas de Euskal Herria, y pecoreo de abejas en las zonas pastables de los montes de titularidad municipal del Ayuntamiento de Areatza.<br><br>**Artículo 2.**El Ayuntamiento de Areatza podrá autorizar el aprovechamiento de pastos antes mencionado en los términos y condiciones que establece la presente Ordenanza y de acuerdo con lo dispuesto en los Planes de Ordenación de los montes. Esta autorización se hace dejando a salvo el derecho de propiedad y sin perjuicio de terceros.<br>Los periodos de autorización podran ser plurianuales dentro de planes y/o compromisos específicos entre las partes.<br><br>Asimismo el Ayuntamiento de Areatza podrá formalizar Convenios de Colaboración con las Asociaciones de personas ganaderas del municipio legalmente constituidas o con otras Asociaciones de ámbito no exclusivamente municipal.<br>**Artículo 3.**Podrán solicitar el aprovecha-miento de los pastos que regulan la presente Ordenanza:<br>- Las personas vecinas del Municipio de Areatza, titulares de una explotación ganadera de ganado bovino,equino,ovino y/o caprinoy/o de colmenas de abejas ubicada en el término municipal de Areatza.<br>- Las Asociaciones de ganaderos del municipio legalmente constituidas.<br>-Las personas titulares de una explotacion ganadera de ganado bovino,equino,ovino y/o caprino y/o de colmenas de abejas ubicada en el término municipal de Areatza.<br>- Asociaciones de ámbito no exclusivamente municipal con la que se establezcan convenios. |

**4. artikulua.** Urtero emango da larreen aprobetxamendua, aldez aurretik interesatuak -udal honek urtero ezarriko duen epean eta moduan- eskaria aurkeztuta.

Eskabidea "Gorbeiako larreen aprobetxamendurako eskabidea" izenarekin udal honek egingo duen eredua erabiliz egingo da, honako hau jasoz:
- Izena eta abizenak, NAN, lanbidea eta helbidea, pertsona fisikoaren kasuan; eta izena, jarduera, IFZ, eta helbide soziala pertsona juridikoaren kasuan.
- Larreetara joango den abere bakoitzaren identifikazio zenbakia. Bakoitzaren arraza adierazteaz gain, azken osasun kanpainan sartuta egon beharko dira.
- Aprobetxamendua eskatzearen arrazoiak.

Eta ondorengo dokumentazioarekin batera aurkeztuko da:
- Ordenantza, hitzez hitz, eta ezargarria den goragoko araudia betetzearen inguruko zinpeko aitorpena.Esplizituki sartuko da soilik eta zuzenean esleipendunaren jabetzakoak diren animaliek gozatuko dutela larreez, eta ez dela modurik egongo eskabide honekin loturarik ez duen hirugarren bat aprobetxamenduaren onuraduna izan dadin.

- Zaldi-abere txartelaren jatorrizkoa aurkeztu, eta honen kopia emango da.
- Gutxienez 150.000 euroko EZ aseguru baten ordainketan egunean egoteari buruzko egiaztagiria.
- Eskatzailea titular gisa ageri den nekazaritza-ustiapen txartelaren kopia.
- Egindako azken saneamendu-kanpainaren fotokopia. Udal honek sinatutako "Gorbeia Mendiguneko Osasun Programa" betetzen dela ziurtatzen duten egiaztagiriak.
- Abere-jardueran berrikuntzarik egonez gero, honako hau sartuko da: bideragarritasun ekonomikoari buruzko azterketa, inbertsio-plana, memoria edo proiektu teknikoa.
-Eskatzaileak aurkeztea egokitzat jotzen duen beste edozein agiri.
Ez da onartuko aurretik aipatutako datuak zein dokumentuak jasotzen ez dituen eskabiderik.

**Artículo 4.**El aprovechamiento de las zonas pastables se concederá anualmente a instancia de la persona solicitante, en el tiempo y forma que también anualmente establezca este Ayuntamiento.
En la solicitud, que se realizará a través de modelo acordado por este Ayuntamiento, denominada "Solicitud de aprovechamiento de areas de pasto en Gorbeia", se haran constar:
- Nombre y apellidos, D.N.I., profesión y domicilio, en el caso de persona física; y nombre, actividad, N.I.F. y domicilio social, en caso de persona jurídica.
- Número de identificación de las cabezas de ganado que accederán a los pastos,debiendo estas estar incluidas en la última campaña sanitaria, con indicación de raza de las mismas.
- Circunstacias por las que solicita el aprovechamiento.
Y se acompañará de la siguiente documentación:
- Declaración jurada respecto al cumplimiento de la Ordenanza en todos sus términos, y de la normativa superior aplicable.Incluyendo explicitamente que el disfrute del pasto se ejercitara única y directamente por animales propiedad de la persona adjudicataria ó sin que quepa forma mediante la cual pueda ser beneficiaria del aprovechamiento una tercera persona ajena a esta solicitud.
- Presentación del original de la cartilla de ganado equino y entrega de copia de la misma.
- Comprobante de estar al corriente en el pago de un seguro de RC no inferior a 150.000 €.

- Copia de la tarjeta de explotacion agraria en la que el solicitante conste como titular.
- Fotocopia de la última campaña de saneamiento practicada.Justificantes del cumplimiento del "Programa Sanitario del Macizo del Gorbeia" suscrito por este Ayuntamiento
- En el caso de nuevas incorporaciones a la actividad ganadera, se incluirá: estudio de viabilidad económica, plan de inversiones, memoria o proyecto técnico.
-Otra documentación que la persona solicitante considere oportuno aportar.
No será admitida ninguna instancia que no reúna los datos y documentos antes citados.

| | |
|---|---|
| Udala, aurkeztutako dokumentazioa aztertzerakoan, konturatzen bada eskatutako edozein betebehar falta dela, horren berri jakinarazi eta 10 eguneko epea emango dio eskatzaileari hutsunea zuzendu dezan; era berean, zuzendu ezean bere eskaria gehiagoko izapide barik artxibatuta geratuko dela ohartaraziko dio. | Advertida por el Ayuntamiento la falta de cualquiera de ellos, lo comunicará a la solicitante para que en el plazo de diez (10) días hábiles los subsane, con apercibimiento de que si así no lo hiciere se archivará la solicitud sin más trámite. |
| **5. artikulua.** Udalak emango du larreetara sartzeko eta hauetaz gozatzeko baimena, betiere jarraipen batzordean eskatzen diren betekizunak betetzen direla egiaztatu ostean. | **Artículo 5.** La autorización de acceso y disfrute al pasto la concederá el Ayuntamiento tras la comprobación del cumplimiento de los requisitos exigibles en la comision de seguimiento. |
| Udalak, Foru Aldundiko Basoetarako Zerbitzuak edota Jarraipen batzordeak larreen gehiegizko erabilera gertatu dela hautemanez gero, herritarrak edota abeltzaintza jarduera bakarrean eta esklusiboan ari diren bertoko arrazako ganaduen elkarteak lehenetsiko dira, ekonomia umilenei lehentasuna emanez. | En el supuesto de saturación del uso de las zonas pastables, apreciada por el Ayuntamiento y/o el Servicio de Montes del Departamento de Agricultura Foral y/o la Comisión de Seguimiento, se concederá preferencia a las personas vecinas, y/o asociaciones con ganado de razas autóctonas, con dedicación exclusiva a la ganadería, primando las economías más modestas. |
| Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Saileko Basoetarako Zerbitzuak, Herri Onurako Basoen kudeatzaile modura, abeltzaintza alderdi bakoitzerako gehienezko abeltzain-zama ezarri beharko du. | El Servicio de Montes del Departamento de Agricultura de la Diputación Foral de Bizkaia, como gestor de los Montes de Utilidad Pública, deberá establecer la carga ganadera máxima admisible para cada una de las zonas de pastoreo. |
| **6. artikulua.** Larreen erabiltzaileen betebeharrak honako hauek izango dira: | **Artículo 6.** Son obligaciones de la persona usuaria de los pastizales: |
| -Larreen baimena urtero eskatzea. | -Solicitar anualmente la autorización de pastos. |
| - Ganadu guztiak Areatzako Udalaren arrakadarekin identifikatuta egotea, Jarraipen Batzordean ezarritako irizpideekin bat etorriz. | - Identificar el ganado con el crotal identificativo del Ayuntamiento de Areatza, de acuerdo con los criterios que se establezcan en la Comisión de Seguimiento |
| - Larreak Foru Arauan ezarritakoaren arabera eta Areatzako Udalak erabakitako epe aldietan erabiltzea.Baimendutako epe aldietatik kanpo ezin izango da larrerik aprobetxatu. | - Utilización de los pastos en los períodos que se establezcan en la normativa foral y por acuerdo del Ayuntamiento de Areatza. Fuera de los períodos habilitados no se podrán aprovechar las zonas pastables. |
| - Ez erabiltzea larreak baimendutako xede eta helburuetatik apartekoetarako. | - No utilización de los pastos para fines distintos de los autorizados. |
| -Ordenantza honen helburu diren lursailetan larratzen duten abereek horretarako eskumena duen Erakunde Publikoak ezarritako ezinbesteko osasun baldintzak bete beharko dituzte, betiere ganadua hobetzeko asmoz aldeek ezarritako beste osasun arau batzuei | -Todo el ganado que paste en los terrenos objeto de esta ordenanza deberán reunir las condiciones sanitarias obligatorias que por el Organismo Público competente se establezcan, sin perjuicio de otras normas sanitarias que se fijen por las partes para mejora de la cabaña. En caso incumplir esta condición, el Ayuntamiento intervendrá directamente |

kalterik egin barik. Baldintza hau betetzen ez bada, Udalak zuzenean eskuhartu eta aipatutako baldintzak betetzen ez duen ganadua kenduko du.

- Urte eta ekitaldi bakoitzerako Udalak erabakitako kanona ordaintzea zein beste edozein derrigorrezko ordainketa udalak ezarri ahal izango duena.

-Edozein motako udal tasen eta zergen ordainketan egunean egotea.

-Abeltzainen elkarteak, edo udalak gure inguruan sektorearen etengabeko prestakuntza programatzen duten erakunde desberdinekin lankidetzan, antolatutakoen artean urtean gutxienez 5 orduko sektore-prestakuntzan parte hartzea.

- Auzolanetan parte hartzeko eta sortutako erabilerarako baliagarri egoteko larreen mantentze-lanen kostuak ordaintzeko benetako eta egiazko jarrera; bai partikular modura zein dagokion elkartearen bidez.

- Erabiltzaile eta Udalaren artean helburu honetako sortutako Jarraipen Batzordean parte hartzea. Batzordeak berezko funtzionamendu arauak landuko ditu.

- Larre barruetan burdin haria ipintzearen bidezko barruko itxitura edo zatikako banaketarik ez egitea; dena den, aprobetxamendua egingo den larreak inguratuz itxi ahalko dira.Aipatutako itxiturak aldez aurretik Areatzako Udalari eskaera aurkezturik eta honek onarpena eman ondoren egingo dira, betiere Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Saileko Basoetarako Zerbitzuaren edo Parke Naturala kudeatzen duen erakundearen aldeko txostenarekin, kasua balitz.

**7. artikulua.** 4. artikuluan ezarritako arrazoiengatik eta ondoren zerrendatzen diren beste arrazoi hauengatik ere eman ahalko zaie ezezkoa larreak aprobetxatzeko baimen eskariei:

- Onuradunak aurreko ekitaldian larrea ez erabiltzea edo gutxiegi erabiltzea.

- Udalak ezarritako kanona eta tasak erabakitako epeen barruan ez ordaintzea.

- Larrea erabiltzeko eskubidearentransferentzia, edozein titulu bitartez (10. artikuluan ezarritakoa izan ezik).

retirando el ganado que incumpla dichas condiciones.

- Pagar el canon que establezca el Ayuntamiento para cada ejercicio y cualquier otro que se imponga.

-Estar al corriente en los pagos de impuestos y tasas municipales de cualquier clase.

-Participar en formacion anual sectorial por un minimo de 5 horas anuales de entre las que organice bien la asociacion de ganaderos, bien el Ayuntamiento con la colaboración de las diferentes entidades que programan formación continua sectorial en nuestro entorno.

- Disposición efectiva a participar en trabajos comunitarios y sufragar costes para mantener las zonas pastables en estados de servir al uso creado, bien de forma particular o a través de la Asociación correspondiente.

- Participación en la Comisión de Seguimiento Usuarios-Ayuntamiento que se cree al efecto. La comisión elaborará sus propias normas de funcionamiento.

- No efectuar cierres interiores o división en lotes mediante colocación de alambradas en el interior de las zonas pastables, aunque sí podrán cerrarse perimetralmente las zonas objeto de este aprovechamiento.Dichos cierres se efectuaran previa solicitud al respecto y posterior aprobación del Ayuntamiento de Areatza, así como informe favorable del Servicio de Montes del Departamento de Agricultura de la Diputación Foral de Bizkaia o del organo gestor del Parque Natural, en su caso.

**Artículo 7.**Las solicitudes de autorizaciones de aprovechamiento podrán ser denegadas, además de los motivos establecidos en el artículo 4,en los siguientes supuestos:

- No utilización o infrautilización de la zona pastable por el beneficiario en el ejercicio anterior.

- Impago en los plazos establecidos, del canon u otras tasas impuestas por el Ayuntamiento.

- Transferencia por cualquier título del derecho de uso de la zona pastable (salvo lo establecido en el artículo 10).

- No estar al corriente de cualquier tipo de obligaciones fiscales frente a la Administración

- Toki Administrazioarekiko edozein motako zerga betebeharren ordainketan eguneratuta ez egotea.
- Auzolanetan eta larreen mantentze-lanetarako beharrezko irizten diren kostuen ordainketan parterik ez hartzea.

-Ordenantza honi jarraiki, zigor modura larreetara sarbidea eskatzeko eskubidea kendu izana.

**8. artikulua.** Jarraipen Batzordea sortuko da, galderak egin, larreen erabilera eta ustiapena hobetzeko gaietan aholkua eskaini eta koordinaziorako organo legez.

Jarraipen Batzordea honako kide hauekin eratuko da:
- Areatzako Udaleko Alkatetzak izendutako 2 ordezkari.
- Larreen aprobetxamendurako baimendutako abeltzain guztien arteko 2 ordezkari.

-Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Saileko Basoetarako Zerbitzuko ordezkari 1.

-Gorbeialde LGEko lehenengo sektoreko teknikari 1, ahotsarekin, baina boto eskubide barik.

Areatzako Udaleko ordezkari bat izango da Jarraipen Batzordearen lehendakaria, eta kalitateko botoa izango du bozketan berdinketa bat izango balitz. Eratzeko egingo duen bileran, Jarraipen Batzordeak bere barruko araudia eta funtzionamendurako arauak erabaki eta finkatuko ditu, Areatzako Udalak onartuko dituelarik.

**9. artikulua.** Baimen barik, baimendu diren alderdietatik kanpo edo Ordenantza honetan ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten ganaduak larreetatik atera ahal izango dira, aldez aurretik jabeari jakinarazpena bidaliz gero. Identifikatu gabeko ganadua izanez gero, berau atera egingo da.

Areatzako udalerriari dagokion identifikazio-arrakada ez daukan ganadua edo udal baimenik ez daukana joko da baimendu gabeko ganadutzat.

Udalak, bere kabuz edo beste entitate publiko edo abeltzain elkartearekin batera, identifikatu

Local.
- No participar en los trabajos comunitarios y en la sufragación de costes que se estimen necesarios para el mantenimiento de las zonas pastables.

-Haber sido sancionado, en virtud de esta Ordenanza con la retirada del derecho a solicitar el acceso a pastos.

**Artículo 8.** Se creará una Comisión de Seguimiento como órgano de consulta, asesoramiento y coordinación sobre aquellas cuestiones relativas al mejor uso y aprovechamiento de la zona pastable creada.

La Comisión de Seguimiento estará integrada por los siguientes miembros:
- 2 representantes designados por la Alcaldía del Ayuntamiento de Areatza.
- 2 representantes de los ganaderos autorizados al aprovechamiento de la zona pastable.

-1 representante del Servicio de Montes del Departamento de Agricultura de la Diputación Foral de Bizkaia.

-1 tecnico del área de sector primario de la ADR Gorbeialde, con voz, pero sin derecho a voto.

La Presidencia de la Comisión de Seguimiento la ostentará un representante del Ayuntamiento de Areatza, que asimismo tendrá voto de calidad en caso de empate. En su reunión constitutiva, la Comisión de Seguimiento establecerá sus reglamentos y normas de funcionamiento, que serán aprobados por el Ayuntamiento de Areatza.

**Artículo 9.** El ganado que pastoree sin autorización o fuera de zonas autorizadas o incumpliendo las condiciones fijadas en la presente Ordenanza podrá ser retirado del monte previa notificación al responsable del mismo .En caso de ganado no identificado, se procederá a su retirada.

Se considerara ganado no autorizado a aquel que no cuente con la autorizacion municipal o con el crotal de identificacion correspondiente al municipio de Areatza.

El Ayuntamiento, por sí o en colaboración con otras entidades públicas o con Asociaciones de Ganaderos, podrá proceder a la retirada del ganado intruso, con exigencia de

gabeko ganaduak larreetatik atera ahal izango ditu eta euren jabeei erantzukizunak eskatu.

**10. artikulua.** Udalerriko larreak erabiltzeko Udalak emandako baimena besterenezina da, salbu eta ustiategi kontsolidatuak izategatik jarraipena bermatzen bada. Hau guztia, Jarraipen Batzordeak ezarritako irizpideekin bat etorriz.

**11. artikulua.** Areatzako Udalak, Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak eta Jarraipen Batzordeak edozein momentutan egin ahal izango dituzte egokiak iriztendituzten ikuskapenak, eta modu librean ibili ahalko dira larre eremuetatik.Era berean, eta behar diren kasuak egiaztatzeko udalerriko abeltzainen elkarteei laguntza emateko eskatuko zaie.

**12. artikulua.** Larreetan egon ahal diren bide-zortasunak eta ustiategietatik egon ahal diren sarbideak errespetatu beharko dira.Zentzu honetan, Areatzako Udalak, Jarraipen Batzordearen proposamenez, sarbide hauen gaur egungo egoera ezagutzeko behar diren azterlanak egin eta dagozkion neurriak hartuko ditu.

**13. artikulua.** Udal honek urtero ezarriko du larreen aprobetxamenduagatik ordaindu behar den kanona. Hau guztia, aldez aurretik Jarraipen Batzordearen proposamenarekin eta Mendien eta Babespeko Naturguneen ekainaren 2ko3/94 Foru Arauaren 49.artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz.

**14. artikulua.** Udalak, Bizkaiko Foru Aldundiko Basoetarako Zerbitzuaren aldez aurretiko txostenarekin, eta Jarraipen Batzordeari kontsulta egin aurretik, ganaduen arraza batzuen aprobetxamendurako larreetako alderdi batzuk mugatu ahal izango ditu; hau guztia, beste gauza batzuen artean, arraza horretako ganadu gazteak hazteko guneak zehazteko asmoz.

**15. artikulua.** Udalak, egokitzat jotzen badu, beste udalerri batzuetako ganaduak udalerri honetako larretan ibiltzea baimendu ahal izango du eta era berean, mugan dauden

responsabilidades a sus propietarios.

**Artículo 10.** La autorización concedida por el Ayuntamiento para el uso de las zonas pastables es intransferible; salvo los supuestos que garanticen la continuidad de las explotaciones consolidadas, de acuerdo con los criterios que al respecto establezca la Comisión de Seguimiento.

**Artículo 11.** El Ayuntamiento de Areatza, el Departamento de Agricultura de la Diputación Foral de Bizkaia y la Comisión de Seguimiento podrán realizar en cualquier momento las inspecciones que crean convenientes, los cuales gozarán de libre tránsito por las zonas de pastoreo. Asimismo y para la realización de las oportunas verificaciones, se solicitará la colaboración a las Asociaciones de ganaderos del Municipio.

**Artículo 12.** Deberán respetarse las servidumbres de paso que puedan existir en las zonas pastables y los accesos a ellos desde las explotaciones. En este sentido el Ayuntamiento de Areatza, a propuesta de la Comisión de Seguimiento, realizará los estudios necesarios para conocer el estado actual de dichos accesos y tomar las medidas correspondientes.

**Artículo 13.**El cánon a abonar anualmente por el disfrute de las zonas pastables será fijado por esta entidad local, previa propuesta de la Comisión de Seguimiento y de acuerdo con lo previsto en el artículo 49 de la Norma Foral 3/1994 de 2 de junio, de Montes y Espacios NaturalesProtegidos.

**Artículo 14.** El Ayuntamiento, previo informe del Servicio de Montes de la Diputación Foral de Bizkaia, y asimismo previa consulta al respecto a la Comisión de Seguimiento, podrá acotar zonas pastables para el aprovechamiento exclusivo de determinadas razas de ganado, con el fin de determinar entre otras cuestiones, zonas de recría.

**Artículo 15.** El Ayuntamiento podrá autorizar el pasto de ganado de otros municipios en el caso de que así se considere oportuno y asimismo podrá establecer las normas de flexibilidad del ganado de los municipios colindantes, que en todo caso habrán de

beste udalerri batzuetako ganaduentzako malgutasun-arauak ezarri ahal izango ditu. Edozein kasutan ere, lau printzipio hauei jarraitu beharko diete:
1.-Areatzako udalerrian indarrean dagoen "Gorbeia Mendiguneko Osasun Programa"betetzea.
2.-Mugakide diren larreetan GAU/Hektarea oreka mantentzea.
3.-Bertoko arrazen kudeaketari buruzko alderdiak betetzea.
4.-Ganadua udal arrakadarekin identifikatzea.

Era berean, aprobetxamendua egiteko egokitzat jotzen dituen beste era batzuk ere ezarri ahalko ditu.Kontu hauek, Jarraipen Batzordeari aldez aurretik kontsultatuz gero egin ahal izango dira.

**16. artikulua.** Areatzako Udalak, Jarraipen Batzordearen proposamenez eta Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren lankidetzarekin, kudeaketa plan bat onartuko du larreen ustiapen osoa eta bete-betekoa egin ahal izateko baldintzak zehaztu asmoz.Ateratako ondorioak administrazioarentzako oinarri izango dira, hurrengo urteetan ere, larreak administratzeko.

**17. artikulua.** Ordenantza honek arautzen dituen larreetan egin nahi den edozein azpiegitura-obra Areatzako Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Saileko Basoetarako Zerbitzuak baimendu beharko dute. Azken honek, basoaren balio naturalekin bideragarri den aldeko txostena aldez aurretik eginik, edo kasua bada, Gorbeiako Parke Naturaleko Kudeaketa Erakundeak egindakoarekin bat etorriz. Era berean, Jarraipen Batzordeari aldez aurretik kontsultatu beharko zaio.

**18. artikulua.** Gorbeiako Parke Naturalean kokaturik dauden larreetan egiten diren ekintza guztietarako Parke Naturaleko Kudeaketa Erakundearen baimena beharko da.

**19. artikulua.**Ordenantza honen 6. atalean ezarritako betebeharrak bete ezean, aldez aurretik egindako espediente kontrajarri baten bidez, larrea aprobetxatzeko emandako baimena baliogabetuko da. Jarraipen

regirse por estos cuatro principios:

1.-Cumplimiento del "Programa Sanitario Macizo de Gorbeia"en vigor en el municipio de Areatza.
2.-Equilibrio de UGMs/Hectarea en las áreas de pasto colindantes.
3.-Cumplimiento de los aspectos relativos a la gestión de razas autóctonas.
4.-Identificación del ganado con crotal municipal.
Asimismo podrá establecerse otras formas puntuales de aprovechamiento que se considere oportuno. Estas cuestiones se podran realizar previa consulta a la Comisión de Seguimiento.

**Articulo 16.** El Ayuntamiento de Areatza, a propuesta de la Comisión de Seguimiento y en colaboración con el Servicio de Montes del Departamento de Agricultura de la Diputación Foral de Bizkaia, aprobará un plan de gestión a fin de determinar las condiciones para el pleno aprovechamiento de las zonas pastables. Las conclusiones obtenidas servirán de base para la administración de las zonas pastables en los períodos sucesivos.

**Artículo 17.** Cualquier obra de infraestructura que se quiera llevar a cabo en las zonas pastables objeto de esta ordenanza deberá ser aprobada por el Ayuntamiento de Areatza y por el Servicio de Montes del Departamento de Agricultura de la Diputación Foral de Bizkaia, que debe emitir informe favorable de compatibilidad con la persistencia de los valores naturales del monte, y, en su caso, por el Organo Gestor del Parque Natural de Gorbeia. Asimismo se deberá realizar consulta previa a la Comisión de Seguimiento.

**Artículo 18.** En todas aquellas actuaciones que se realicen en las zonas pastables en el ámbito del Parque Natural de Gorbeia, será necesaria la autorización del Organo Gestor del Parque Natural.

**Artículo 19.** El incumplimiento de las obligaciones establecidas en el artículo 6 de la presente Ordenanza, conllevará, previo expediente contradictorio llevado al efecto, la revocación de la autorización de pasto. La Comisión de Seguimiento asesorará al Ayuntamiento en la tramitación del expediente.

Batzordeak espedientearen izapideak egiteko aholkuak emango dizkio Udalari.

**19.1. Arau-hausteak.** Ordenantza honetako arau-hausteak arinak, larriak edo oso larriak izan daitezke.

**- Arinak:** Arau-hauste arinak larreei edo aprobetxamendu planean aurreikusitakoari eragiten dieten ekintzak edo ez-egiteak dira, betiere hauek larritzat edo oso larritzat jotzen ez badira.

**- Larriak:** Arau-hauste larriak larreei edo ganaduari kalteak eragiten dizkieten ekintzak edo ez-egiteak, edota osasun arauen aurka doazenak dira, betiere oso larritzat jotzen ez badira.

Edonola ere, larritzat joko dira:

- Animaliek garaia ez denean larratzea.
- Hazitarako animaliek baimen barik larratzea.

- Zaldiak, behiak, ardiak eta ahuntzak identifikatu barik egotea.
- Hirugarren baten animaliak larratzera eramatea, norberarenak balira bezala azalduz.
- Larreak esleitu ostean, kudeaketa planean aurreikusitakoa ez betetzea.
- Kanpaina-proben mende egon barik, edo ezinbesteko txertoak ezarri barik, edo udal honek erabakitako osasun planak jarraitu barik joatea ganaduarekin larretara.
- Ez jakinaraztea gaixotasun infekto-kutsakor bat duen animalia bat hil izana
- Onuradunak baimenduta dituen abelburuak baino gehiago eramatea larratzera, larrean dagoen abelburu-kopuruak aprobetxamendu planean aurreikusitakoa gaindituko balu.

**-Oso larriak:** Arau-hauste oso larritzat larreen birsorkuntza edo instalazioen mantenua arriskuan jartzen duten ekintzak edo ez-egiteak, edota gaixotasun infekto-kutsakorrak transmititzeko arriskutsuak direnak joko dira.

Honako hauek dira arau-hauste oso larriak:

-Abereen osasun kanpainen probetan eta udal honek erabakitako osasun planetan emaitza positiboak izan dituzten abelburuak larreetara eramatea.

-Animaliak edo animaliek gaixotasun infekto-

**19.1. Infracciones.** Las infracciones administrativas objeto de esta ordenanza se clasifican en leves, graves y muy graves.

**- Leves:** Son infracciones leves aquellas acciones u omisiones que afectando a los pastos, o a lo previsto en el plan de aprovechamiento, no estén consideradas como faltas graves o muy graves.

**- Graves:** Se considerarán infracciones graves las acciones u omisiones que causen perjuicio a los pastos, al ganado, o contravengan las normas sanitarias, y no estén consideradas como muy graves.

En todo caso se calificarán como graves:

- El pastar los animales fuera de época.
- Que pasten los sementales, sin que estén autorizados.
- Que el ganado equino, vacuno, ovino y caprino no esté identificado.
- Llevar a pastar animales propiedad de un tercero, haciéndolos figurar como propios.
- Cuando adjudicados los pastos no se respete lo prevenido en el plan de gestión.
- Acudir con el ganado a los pastos sin estar sometidos a las pruebas de campaña, o sin aplicar las vacunas obligatorias, o planes sanitarios acordados por este Ayuntamiento.
- No dar cuenta del fallecimiento de un animal que padeciere enfermedad infectocontagiosa.
- Llevar a pastar mayor número de reses que como beneficiario tenga autorizados, si el número de cabezas de ganado en el pasto excediera del previsto en el plan de aprovechamiento.

**-Muy graves:** Se considerarán infracciones muy graves las acciones u omisiones que pongan en peligro la regeneración de los pastos, la conservación de las instalaciones o que constituyan peligro de transmisiones de enfermedades infectocontagiosas.

Se tipifican como faltas muy graves:

-La asistencia a pastos de reses que hayan resultado positivas a las pruebas de la campaña de saneamiento ganadero y en los planes sanitarios acordados por este Ayuntamiento.

-Cuando se acredite que el animal o animales padecen enfermedad infectocontagiosa.

-Cuando el propietario no entierre u ordene

| | |
|---|---|
| kutsakorra dutela egiaztatzea<br>-Jabeak ez duenean lurperatzen edo lurperatzeko agintzen (hildako animalia jasotzeko zerbitzuari aldez aurretik jakinaraziz, eta berau kentzea ezinezkoa denean) gaixotasun infekto-kutsakorren batekin edo besteren batekin hildako animalia.<br>-Erretako larretan artzaintza.<br>-Arrakadekin iruzur egitea.<br>**19.2 Zehapenak.** Arau-hausteak ondorengo isunekin, eta arau-haustearen larritasunaren arabera urtebetetik hiru urtera bitartean larrerako eskubidea etenda zigortuko dira, gerta daitezkeen kalte-ordainei kalterik egin gabe.<br>a) Arau-hauste arinak 100€-300 € bitartean.<br>b) Arau-hauste larriak 301 €-600 € bitartean.<br>b) Arau-hauste oso larriak 601 €-3.000 € bitartean.<br>- Zehapenen inguruko agintea duenak, hau da, udalak, zehaztuko du zenbatekoen graduazioa, aldez aurretik Jarraipen Batzordeak egindako irizpenarekin, eta kontuan izanik kasu bakoitzean gertatutako zirkunstantziak eta zehapenaren proportzionaltasun printzipioa.<br>- Arau-hausteak animaliekiko edo hauen artzaintzarekiko tipifikatuta daudenean, orduan ezarriko den zehapena abelburu bakoitzeko izango da; ez du kalifikazioan eragingo abelburu bat baino gehiago jabe berarenak izateagatik zehapenari dagokion zenbatekoa arau-haustearentzako aurreikusitako gainditzeak.<br>Zehapenak diru bidez edo ganadu jarduerarekin lotura duen lan komunitario bidez ordaindu ahal izango dira. Diru-kopuruaren eta lanaren arteko baliokidetasuna jarraipen batzordeak urtero egingo duen taula baten arabera gauzatuko da.<br>Arau-hauste arinen kasuan zehapena jasotzen duen pertsonak erabakiko du ordaintzeko modua; gainerakoa arau-hausteetan zehatzeko aginte aduenak erabakiko du ordaintzeko modua.<br>**20. artikulua.** Ordenantza arautzaile honen interpretazioa eta auzitakoak izan daitezkeen gaien ebazpena Areatzako Udalaren kontura izango da, behin Jarraipen Batzordea entzun eta gero. | enterrar(previa comunicación al servicio de recogidade ganado muerto, y en el caso de que no sea posible su retirada), un animal muerto que padeciere una enfermedad infectocontagiosa o de otro tipo.<br>-El pastoreo en pastos quemados.<br>-El uso fraudulento de crotales.<br>**19.2. Sanciones.** Las infracciones se sancionarán con las siguientes multas, y con la suspensión del derecho a pasto por un periodo entre uno y tres años, dependiendo de la gravedad de la infracción, sin perjuicio de las indemnizaciones a que hubiere lugar.<br>a) De 100 € a 300 €. las faltas leves.<br>b) Desde301 € hasta 600 € las faltas graves.<br>c) Desde601 € hasta 3.000 € las faltas muy graves.<br>- La graduación de las cuantías se fijará por la autoridad sancionadora, esto es el Ayuntamiento, previo dictamen realizado por la Comisión de seguimiento, teniendo en cuenta las circunstancias que concurran en cada caso y el principio de proporcionalidad de la sanción.<br><br>- Cuando las infracciones estén tipificadas por el pastoreo de los animales o referidas a éstos, la sanción se impondrá por cabeza, sin que varíe su calificación el hecho de que por ser varias cabezas del mismo dueño, la cantidad a que ascendiere la sanción excediere de la prevista para la infracción.<br>El pago de las sanciones podrá realizarse en dinero o en trabajo comunitario relacionado con la actividad ganadera. La conversión del importe dinerario en trabajo se realizará según la tabla que anualmente elaborará la comision de seguimiento.<br>Para el caso de infracciones leves, la elección del metodo de pago queda a disposición de la persona sancionada, en el resto de infracciones, será la autoridad sancionadora la que dictamine el medio de pago.<br>**Artículo 20.** La interpretación de la presente Ordenanza Reguladora y la resolución de las cuestiones susceptibles de litigio que se susciten, serán resueltas por el Ayuntamiento de Areatza, una vez oída la Comisión de Seguimiento.<br>**Articulo 21.** Esta Ordenanza está sujeta a lo establecido con la Norma Foral 3/1994 de 2 de |

| | |
|---|---|
| **21. artikulua.** Ordenantza hau ekainaren 2ko 3/1994 Foru Arauak –Basoei eta Babestutako Naturguneei buruzkoa— ezartzen duenari atxikia dago. Zehazki, III. Kapituluko I. ataleko 68tik 72ra bitarteko artikuluetan –biak barne— ezartzen duenari atxikia, bertan Herri Onurako Basoetan abeltzaintza arautzen baita, baita honen gainean azaroaren 21eko Mendiei buruzko 43/2003 Legeak ezartzen duenari eta goragoko mailako edozein antolamenduri ere.<br>**Azken Xedapena**<br>Araudi hau «Bizkaiko Egunkari Ofizialean» argitaratzen den hurrengo egunetik aurrera jarriko da indarrean. | junio, de Montes y Espacios Naturales Protegidos, concretamente a lo establecido en el Capítulo III, Sección 1ª, artículos del 68 al 72, ambos inclusive, que regulan el pastoreo en Montes de Utilidad Pública; así como a lo dispuesto al respecto en la Ley 43/2003, de 21 de noviembre de Montes, asi como a cualquier ordenación de rango superior.<br>**Disposición Final**<br>La presente normativa entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia». |